

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA  
CASA DE LAS MUJERES

2017 URTERILETIK AURRERA  
A PARTIR DE ENERO

# PROGRAMAZIOA





## EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea, mugimendu feminista eta Donostiako emakume elkarten aldarrikapen historikoa da 70. hamarkadatik aurrera. Emakume elkarte, mugimendu feminista eta Donostiako Udalaren arteko prozesu parte hartzaile baten ondorioz sortu zen Emakumeen Etxea, ateak 2010.urte bukaeran ireki zituelarik. Aipaturiko prozesu honek, Emakumeen Etxea Elkarte eta Udaleko Berdintasun Sailaren arteko kudeaketa mistoa duen eredu aitzindari bati bide eman dio. Emakumeen Etxea, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, gogoeta egiteko, esperientziak eta konplizitateak elkartrukatzeko, pentsamendua ekoizteko eta kolektiboki aurrera egiteko elkargune bat da. Etxea, erreferentziako gun bat da, bai udalerriko emakume guztientzat, bai Lurralde Historikokoentzat, bai Autonomia Erkidegokoentzat ere.

La Casa de las Mujeres es una reivindicación histórica desde la década de los 70 del movimiento feminista y de las asociaciones de mujeres de Donostia. Se crea tras un proceso de participación entre el movimiento feminista y asociativo de las mujeres y la Sección de Igualdad del Ayuntamiento, a finales del 2010. Este proceso ha dado lugar a un modelo pionero de gestión mixta entre la Asociación Casa de las Mujeres y el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento. La Casa de las Mujeres es un lugar de encuentro donde compartir experiencias y complicidades que favorezcan una acción colectiva de las mujeres para avanzar de forma conjunta en la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres. Es un lugar de referencia no solo para todas las mujeres de Donostia, sino también del Territorio Histórico y de la Comunidad Autónoma.

## TAILERRAK

Sexualitate tailerra  
Rap feminista  
Klown tailerra  
Ahalduntze ekonomikorako formakuntza  
Irakurle eskola feminista  
Autodefentsa feminista  
Talde kantua  
Ventaneras  
Zapalduen antzerkia  
Gerrak euskal literaturan  
Praktika performatiboak: gorputzak, prozesuak eta zaintzak  
Arte plastikoak  
Brikolajera  
Ahalduntza teknologikoa  
Xake  
Batukada feminista

## JABETZE TALDEAK

Jatorria askotariko emekumeentzako kulturarteko gunea  
Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak  
Demboraren bankua  
Aholkularitza, laguntza taldea

## ZERBITZUAK

Etxeko langileentzako aholkularitza  
Lege aholkularitza  
Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea  
"Iguálate" ikasketak homologatzeko kanpaina  
"Biluzik mundura"  
Norbanakoaren jabetzarako gunea  
Ordenagailu eta internet

## TALLERES

Sexualidad  
Rap feminista  
Clown  
Empoderamiento laboral  
Escuela feminista de lectoras  
Autodefensa feminista  
Canto grupal  
Ventaneras  
Teatro de las oprimidas  
Las guerras en la literatura vasca  
Práctica performativa: cuerpos, procesos y cuidados  
Artes plásticas  
Bricolajera  
Empoderamiento tecnológico  
Ajedrez  
Batukada feminista

## GRUPOS DE EMPODERAMIENTO

Espacio intercultural para mujeres de diversos orígenes  
Mujeres por una vida libre de violencia  
Banco del tiempo  
Asesoramiento, apoyo y autoayuda

## SERVICIOS

Asesoría para trabajadoras del hogar  
Asesoría jurídica  
Asesoría jurídica e intervención social  
"Iguálate" campaña de convalidación de estudios  
"Biluzik mundura"  
Espacio de agenciamiento individual  
Servicio de ordenador e internet

## AHALDUNTZE EKONOMIKORAKO FORMAKUNTZA

Formatzailea: Maru Sarasola

**Zein da lanarekin daukadan jarrera? Zer egin dut orain arte? Zeri buruz hausnartu dut? Zeri buruz ez dut hausnartu?**

Landuko diren helburu zehatzak:

- Lan merkatuan gertatutako aldaketak eta lana bilatzeko orduan egin behar ditugun aldaketak ezagutu.

- Bakoitzak dituen baliabideak, eskarmentuak eta gaitasunak identifikatu eta baloratu.

- Parte hartzaileak lagundu helburuak argitzeko, estrategiak, mugak jartzen dituzten usteak eta oztopoak aztertu.

- Lana bilatzerakoan dugun bakardadea apurtu, formakuntzarako gune bat sortu, praktikak elkarbanatu, ekimenak kontrastatu, baliabideak gehitu, harremanetarako gaitasunak praktikan jarri eta taldeko estrategiak sortu, profesionalki garatu gaitezen.

### Datak:

Urtarrilak 17 y 31 asteartea  
Otsailak 14 asteartea  
Martxoak 7 asteartea

### Ordua:

9:30 -13:30

### Hizkuntza:

Gaztelania

### Antolatzailea:

Emakumeen Etxea  
Elkartea

### Eguna:

Hilaren 3. asteazkena

### Ordua:

19:00 - 20:30

### Hasiera:

Urtarrilak 18

### Iraupena:

Ikasturte osoa

### Hizkuntza:

Euskara

### Antolatzailea:

Emakumeen Etxea Elkarte

## IRAKURLE ESKOLA FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Irakurle talde honetan pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu, eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Horretarako, hainbat irakurgai (testu solteak, artikuluak edota liburuak) landu, eta horien inguruko gogoeta egingo dugu, betiere diskurtso feministek zabaldu dituzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz, nork bere esperientziatik hitz eginez, nork bere gorputzetik.

## SEXUALITATE TAILERRA

Formatzailea: Irantzu Varela

Tailer hau sexualitatea askatasun gune bezala birpentsatzera, parte hartzaileak ahalduntzera eta geure gorputzaz disfrutatzen zuzenduta dago. Halaber, sexuak maitasun erromantikoaren ideologiarekin daukan lotura apurtzeko lan egingo dugu eta SEXUA gaia landuko dugu konfort, errespetu eta segurtate leku bat sortuz.

**Eguna:**  
Ostirala

**Ordua:**  
18:30 - 20:30

**Hasiera:**  
Otsailak 24

**Iraupena:**  
Ikasturte osoa

**Hizkuntza:**  
Gaztelania

**Antolatzailea:**  
Emakumeen  
Etxea Elkarte



## RAP FEMINISTA

Formatzailea: Nerea Loron

Rapa gustuko duzu? Ba al dakizu zer den? Jakin nahi al duzu? Etorri eta ezagutu raparen historia, nola egiten den...

**Eguna:**  
Ostirala

**Hizkuntza:**  
Gaztelania

**Ordua:**  
17:00 - 18:30

**Antolatzailea:**  
Emakumeen  
Etxea Elkarte

**Hasiera:**  
Otsailak 3

**Iraupena:**  
Ikasturte osoa

## KLOWN TAILERRA

Formatzailea: Beatriz Egizabal

Klown antzerki teknikaren bidez, bizitzan umore gehiago jarri nahi duten emakumeei zuzendutako tailerra, irribarrea erdigunean jarriz. Jokuaren bidez, sexu-genero eraikuntzarekin zerikusia duten zentsurak apurtzera dago zuzenduta tailer hau. Helburu nagusia dibertitzea eta geure buruaz barre egitea da, umorearen bidez ahalduntzeko baliabideak hartzen ditugun heinean.

**Eguna:**  
Astelehena


**Antolatzailea:**  
Emakumeen  
Etxea Elkarte

**Ordua:**  
18:30 - 20:00

**Hasiera:**  
Otsailak 20

**Iraupena:**  
Ikasturte osoa

**Hizkuntza:**  
Elebiduna





**Eguna:**  
Ostirala

**Ordua:**  
18:00 - 20:00

**Hasiera:**  
Otsailak 3

**Iraupena:**  
lkasturte osoa

**Hizkuntza:**  
Euskara

**Antolatzailea:**  
Emakumeen Etxea  
Elkartea

## AUTODEFENTSA FEMINISTA

Formatzailea: Naroa Argoitia

Helburuak:

Emakumeok indarkeriarekiko ditugun bizipenak konpartitu eta biltzea. Esperientzia ezberdinak partekatu eta iritzi trukaketa egitea.

Elkar entzutea eta beldur eta emozio ezberdinei buruz lasai hitz egiteko tarte eta espazio eskaintzea.

Indarkeria egoerak, eraso ezberdinen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea.

Autodefentsaz aritzea eta autodefentsaz ulertzen duguna komunean jarri eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea.

Erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzea. Bai indibidualki martxan jarri beharrekoak eta baita kolektiboki eraiki beharreko erantzun, dinamika, alternatibak pentsatu. Nola ekin?

Emakumeon arteko sarea osatu eta gure arteko aliantzak sendotu, aurrera begira taldea modu autonomo eta horizontalean jarraitzeko aukerari ateak irekiz.



**Eguna:**  
Ostirala

**Ordua:**  
19:30 - 21:00

**Hasiera:**  
Urtarrilak 13

**Iraupena:**  
lkasturte osoa

**Hizkuntza:**  
Euskara

**Antolatzailea:**  
Emakumeen Etxea  
Elkartea

## TALDEKO KANTUA

Formatzailea: Bettina Aragon

Emakumeen Etxeko koru proiektua adin, jatorri eta eskarmentu desberdinetako emakumeen ahotsak batzeko desiotik sortzen da. Koru honetan jabetu nahi gara eta kantu koralararen bidez emakumeen osasuna sustatu nahi dugu. Herritartasun desberdinak batu nahi ditugu, jatorri desberdinetako abestiak abestuz.

# VENTANERAS

## Emakumeek idatzitako literaturaren berrirakurketa

Formatzailea: Mertxe Tranche

Mendeetan zehar, ez da izan emakumeentzat mari-bandera edo hitzontzi deitzea baino irain handiagorik. Etxe edo komentuetan itxita bizi zirelarik, leioa zuten ihesbide eta askabide bakar; eta idatzizko hitzak, berriz, gogamenaren leio. Haien liburuak dira, orain, gure horma baoak emakumeei -guri begira ere badauden emakume horiei- kanpotik barrura begiratzeko eta haiekin eta guri esateko zeukatenarekin egiaz topo egiteko.

“Ventaneras” Ipar Amerikako azpikontinenteko emakumeen literaturara hurbilduko da aurten. Kanadatik Mexikora, emakume idazleak ikusiko ditugu beren buruari galdezka beren tokiaz ohi ez bezalako mundu horretan, aukera eta muga berriez, eta sarritan zaharren oso-oso antzekoez, beteriko munduan. Haien leioek paisaia -natural edo hiritar, liluratu edo desengainatu-xarmagarrietara begira daude, eta guk haien begiez arakatuko ditugu.

### Eguna:

Osteguna,  
hamabost egunean behin

### Ordua:

19:00 - 21:00

### Hasiera:

Urtarrilak 12

### Iraupena:

Ikasturte osoa

### Hizkuntza:

Gaztelania

### Antolatzailea:

Berdintasun Saila

### Eguna:

Asteazkena

### Ordua:

18:30 - 20:00

### Hasiera:

Urtarrilak 11

### Iraupena:

Ikasturte osoa

### Hizkuntza:

Elebiduna

### Antolatzailea:

Emakumeen Etxea

Elkartea

## ZAPALDUEN ANTZERKIA

Formatzailea: Aitziber Eguskiza

Augusto Boalek Brasilen “Zapalduen Antzerkia” deituriko antzerki metodologia ezagutuko dugu. Teoria eta gorputz espresioa erabiliko dira eta “egunerokotasunean ematen diren zapalkuntzetan” arakatuko dugu, aldaketa pertsonala eta soziala helburu.





**Eguna:**

Hilaren 1. osteguna

**Ordua:**

19:00 - 21:00

**Hasiera:**

Urtarrila 12

**Iraupena:**

lkasturte osoa

**Hizkuntza:**

Euskara

**Antolatzailea:**

Berdintasun Saila

## GERRAK EUSKAL LITERATURAN

Formatzailea: Iratxe Retolaza

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, gerraren inguruko diskurtso eta errepresentazio literarioak aurkeztuko ditugu; eta bestetik, teoria eta diskurtso feministek gerraren inguruan garaturiko ikuspegiak aipatuko ditugu. Bidegurutze horretan, literaturak gerraren edo gatazka politikoen inguruko irudiak, sinboloak eta leloak nola eraiki dituen aztertuko dugu, betiere begirada feminista gidarizat hartuz.

Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: nola irudikatu dira gerrak euskal literaturan? Gerraren inguruko topikoak iraunarazteko gune izan al da euskal literatura? Euskal literaturan gerraz jarduteko diskurtso berriak proposatu al dira? Begirada feministak gerraz jarduteko zer diskurtso garatu du literaturan? Testu literarioak baliatzen al ditugu geure gerrak ulertzeko/ interpretatzeko/ eraldatzeko?

## PRAKTIKA PERFORMATIBOAK: GORPUTZAK, PROZESUAK ETA ZAINTZAK

Formatzailea: Amaia Nabaskues eta Ana Revuelta

**Eguna:**

Asteartea

**Ordua:**

18:00 - 19:30

**Hasiera:**

Urtarrilak 24

**Iraupena:**

lkasturte osoa

**Hizkuntza:**

Elebiduna

**Antolatzailea:**

Emakumeen Etxea  
Elkartea

Tailer honetan gorputza izango da protagonista. Gorputzei tokia utziko diegu, diren bezala izateko. Etzan, arnasa hartu, luzatu, ibili, besoak zabaldu, begiratu, pentsatu...

Gorputza eraikuntza soziala dela ulertuta, begirada feminista batetik aztertuko dugu, sexu-genero sistemari dagozkion aspektuak nola instalatzen diren.

Saio bakoitzean, gorputz beroketa sakon baten ostean, dinamikak eta jokuak proposatuko dira gure gorputzak beste era batera bizi eta erabiltzeko asmoz. Tarteka, sormen ariketa txikiak ere landuko dira (mugimendua, performancea...)  
\* Gorputz guztiek parte hartu dezakete tailerlean, ez da beharrezkoa dantza edo antzerkian esperientziarik izatea.





**Eguna:**  
Astelehena

**Ordua:**  
18:30 - 20:00

**Hasiera:**  
Otsailak 6

**Iraupena:**  
Ikasturte osoa


**Hizkuntza:**  
Elebiduna

## ARTE PLASTIKOAK

Formatzailea: Ustaritz Betelu

Arte disziplina desberdinak ezagutuko ditugu, hizkuntza grafikoa, teknika piktorikoak, teknika eskultorikoa, estanzazioen teknika, arte urbanoaren eta land artearen inguruko nozioak... eta guztiekin obra desberdinak sortuko ditugu.

Antolatzailea:  
Emakumeen Etxea Elkartea



**Eguna:**  
Osteguna

**Ordua:**  
18:30 - 20:30

**Hasiera:**  
Martxoak 2

**Amaiera:**  
Apirilak 27

**Hizkuntza:**  
Elebiduna

## BRIKOLAJERA

Formatzailea: Goizalde Larraza

Emakumeek aukera gutxi izan dugu brikolajearen mundua ezagutzeko. Ikastaro honetan, beldurrak eta estereotipoak apurtuz, oinarrizko kontzeptuak landuko ditugu.

Antolatzailea:  
Emakumeen Etxea Elkartea



**Eguna:**  
Astelehena eta  
asteazkena

**Ordua:**  
10:30 - 12:30

**Hasiera:**  
Otsailak 20

**Amaiera:**  
Apirilak 5

**Hizkuntza:**  
Gaztelania

## AHALDUNTZE TEKNOLOGIKOA

Formatzailea: Elena Rincón

Tailer honetan, ahalduntze ikuspuntu batetik, interneten ibiltzen ikasiko dugu, baita mugikorra, tableta eta e-booka erabiltzen ere.

Antolatzailea:  
Emakumeen Etxea Elkartea

**Eguna:**  
Astelehena  
18:30 - 21:00

Asteartea  
18:00 - 21:00

**Iraupena:**  
ikasturte osoa


Hizkuntza  
Gaztelania

Antolatzailea  
Emakumeen Etxea Elkartea

## XAKE

Formatzailea: Julia Gallego

Emakumezko xake jokalariak sortzea eta bultzatzea du helburu talde honek. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzen dira.



**Eguna:**  
Asteazkena

**Ordua:**  
18:30 - 20:30

**Hasiera:**  
Urtarrilak 11

**Iraupena:**  
Ikasturte osoa

**Antolatzailea:**  
Emakumeen Etxea Elkartea

## BATUKADA FEMINISTA

Formatzaileak: Arantxa Vicedo  
eta Ainara Sarasketa

Musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera talde-lanean aritzeko, sormena landu eta autoestimua igotzeko.

Irudimena landu eta besteak entzuten ikasteko. Emakumeok kalera irten eta espazioak okupatu bitartean jendeari gozarazteko.



## JABETZE TALDEAK

### JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Dinamizatzailea: Beatriz Zalakain

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakako ena eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

**Eguna:**

Asteartea

**Ordua:**

16:00-18:00. Zitarik gabe

**Iraupena:**

Ikasturte osoa

**Hizkuntza:**

Gaztelania

**Antolatzailea:**

Berdintasun Saila  
eta Kulturantzatasun Saila

\* Haurtzaindegi zerbitzua (aldez aurretik abisatu)



## INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Dinamizatzailea: Ana Murcia

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte beren artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira: zer gertatzen zaien jakitea, pozarekin konektatzea, nork bere gorputza zaintzea, desirekin duten harremana ezagutzea eta taldearen laguntza jasotzea, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko.

\* Haurtzaindegi zerbitzua (aldez aurretik abisatu)

**Eguna:**

Osteguna

**Ordua:**

16:30 -18:30

Zitarik gabe

**Iraupena:**

Ikasturte osoa

**Hizkuntza:**

Gaztelania

**Antolatzailea:**

Berdintasun Saila

## DENBORAREN BANKU FEMINISTA

Dinamizatzailea: Elena Rincón

Dirurik gabeak baina aberatsak gara. Askotan ez dugu dirurik behar, baizik eta, aukera izan zerbitzuak eskuragarri izateko eta elkar trukatzeko

Gurekin harremanetan jartzeko:

[ematruke@emakumeenetxeaalkarte.org](mailto:ematruke@emakumeenetxeaalkarte.org)

**Iraupena:**

Ikasturte osoa

**Hizkuntza:**

Gaztelania

**Antolatzailea:**

Emakumeen Etxea

Elkartea

## AHOLKULARITZA, LAGUNTZA TALDEA

Errotutako jarrerak eta erruduntasun sentimenduak landu nahiz aldatzeko.

Indarkeriari aurre egin eta autonomia areagotzeko.

**Eguna:**

Astearte

**Ordua:**

14:30 - 16:00

Hitzorduarekin

**Egilea:**

Aizan, Berdintasunerako

Elkarte Psikosoziala

Egileak: Ana Lopez  
eta Juana Aranguren

Astelehena  
16:30 - 18:30  
Hitzorduarekin  
Urriak 3tik aurrera

Egilea: Emakume  
Bananduen Elkarte  
Asteazkena  
19:00 - 21:00  
Hitzorduarekin

Egilea: Arrats Elkarte  
Asteazkena  
16:00 - 18:00  
Hitzorduarekin

Egilea: Bidez Bide Elkarte  
Osteguna  
10:00 - 12:00  
Hitzorduarekin

Egilea: Lahia Nahia  
Sexologia Elkarte  
Astelehena  
17:00 - 20:00 Hitzorduarekin

Egilea: Maite Santamaria  
Asteazkena  
10:00 - 15:00  
Hitzorduarekin

Egilea: Emakumeen Etxea  
10:00 - 21:00

# ZERBITZUAK

## ETXEKO LANGILEENTZAKO AHOLKULARITZA

Eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

## LEGE AHOLKULARITZA

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerriartasuna, genero indarkeria.

## AHOLKULARITZA JURIDIKOA ETA GIZARTE ESKU-HARTZEA.

Espetxe eta zigor zuzenbidea  
Atzerriartasuna  
Lanerako zuzenbidea  
Genero indarkeria  
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alarguntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

## "IGUÁLATE" IKASKETAK HOMOLOGATZEKO KANPAINAK.

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeke aholkularitza.

## "BILUZIK MUNDURA"

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

## NORBANAKOAREN JABEKUNTZARAKO GUNEA

Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreagileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

## ORDENAGAILU ETA INTERNET

Astean Zehar. Doako erabilera.

## DONOSTIAKO EMEKUMEEN ETXEA

[www.donostiakoemekumeenetxea.com](http://www.donostiakoemekumeenetxea.com)

Okendo, 9 - 20004 DONOSTIA

Tel 943 48 34 70

[info@donostiakoemekumeenetxea.com](mailto:info@donostiakoemekumeenetxea.com)

[berdintasuna@donostia.eus](mailto:berdintasuna@donostia.eus)



### ORDUTEGIA HORARIO

Astelehenetik ostiralera  
De lunes a viernes

**10:00 -21:00**



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián



Emakumeen Etxea Elkartea  
Asociación Casa de las Mujeres